



euskalmendizalefederazioa

## EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAREN AKTA

Honako hauek bildu dira Gasteizen, federazioaren egoitzan, 2017ko urtarrilaren 4ko 15:30ean:

PRESIDENTE LANETAN: Fernando Rodríguez Ibáñez

IDAZKARI LANETAN: Fernando Alcalde Olivares

BATZORDEKIDEA: Jesus Maria Agirre Lazkano

### ERABAKI HAUEK HARTU DITUZTE:

1.- Hautagai-zerrenden jakinarazpenerako epea iragan ondoren eta inor ez dela aurkeztu ikusita, eta Euskal Mendizale Federazioaren Hauteskunde Araudiko 26 artikuluan eta, halaber, 2012ko otsailaren 19an Kulturako sailburuak emandako Aginduaren 67. artikuluan xedatutakoa betez, hautagai-zerrendak aurkezteko epea zabaldu da berriro, eta hauteskunde-egutegia aldatu da, hemen adierazitako moduan:

2017-01-04		Presidente eta Zuzendaritza Batzorderako hautagai-zerrendak aurkezteko epea irekitzea
2017-01-11		Hautagai-zerrendak aurkezteko epearen amaiera
2017-01-12		Behin-behineko izaeraz, hautagaiak aldarrikatzea, eta erreklamazioak egiteko epea irekitzea
2017-01-14		Erreklamazioak egiteko epearen amaiera
2017-01-16		Erreklamazioak ebaztea eta hautagai-zerrendak behin betiko onartzea (1) Ezohiko Batzar Orokorrerako deialdia egitea, hala badagokio
2017-02-02		Hautagai-zerrenda bat baino gehiago badaude, hauteskundeak egitea
2017-02-03		Irabazle izan den hautagai-zerrenda aldarrikatzea behin-behinekoz, eta erreklamazioak egiteko epea irekitzea



euskalmendizalefederazioa

2017-02-07		Erreklamazioak egiteko epearen amaiera
2017-02-08		Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea aldarrikatzea behin betiko. Hauteskunde-prozesuaren amaiera.


(1) Hautagai-zerrenda bakarra aurkeztuz gero, berori aldarrikatuko da, hauteskunderik egin gabe.

2.- Federazioaren araudia betez, Euskal Mendizale Federazioaren presidentea eta Zuzendaritza Batzordea aukeratzeko hautagai-zerrendak aurkezteko epea zabaldu da berriro.

3.- Euskal Mendizale Federazioaren presidente eta Zuzendaritza Batzorderako hautagai-zerrendak aurkezteko inprimakien eredu ofiziala 2016ko abenduaren 19an onartutako bera izango da, eta interesa duten guztien esku jarri dugu berriro ere.


Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 4an

#### HAUTESKUNDE-BATZORDEA




B.....

Presidentea



D.....

Idazkaria



D.....

Batzordekidea